



## OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Publikokoaren eta Adikzioen  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud  
Dirección de Salud Pública y Adicciones

## ELGORRIA.

**EAEan indarrean dauden Osasun Publikoko gomendioak**

Elgorria indarrez ari da birsortzen mundu osoan, baita Europan ere. Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait urte elgorririk gabe izan ondoren, 2018. eta 2019. urteetan zenbait kasu bakan sortu dira eta agerraldietan multzokatutako beste kasu batzuk ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoan elgorria zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloak ([azken bertsioa 2019ko maiatzekoa da](#)) adierazten du **hirukoitz birikoaren (Elgorria-Errubeola-Parotiditisa) txertoa eman behar zaiela elgorriarekiko sentikorrak diren pertsoneri**, hau da, gaixotasuna pasa ez duten eta elgorriari aurre egiteko txerto egokiak hartu ez dituztenei. Txertaketa egokia da hirukoitz birikoaren bi dosi hartzea eta dosi horien artean gutxienez hilabete bateko tarte uztea, tarte maximorik gabe.

2009ko Euskal Autonomia Erkidegoko seroprebalentziaren inkestak erakutsi zuen, 1971 eta 1980 artean jaiotako pertsonen artean elgorriaren aurkako antigorputzen prebalentzia % 98,2koa zela eta, hartara, elgorriarekiko sentikorren benetako kopurua txikia zela. Edonola ere, pertsona askok ez dakite elgorria izan zuten eta/edo gaixotasun horren aurkako txertoa jarri zitzaizen; hori dela eta, ikuspuntu praktikotik garrantzi handikoa da alderdi hauek kontuan hartzea:

- Aintzat hartuko da **1970. urtearen aurretik jaiotako pertsona guztiak ez direla elgorriarekiko sentikorrak**, garai hartan populazio ia osoa elgorriaren birusaren eraginpean egon baitzen bizitza osoan.
- **1970. urtearen ondoren jaiotako** Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren kasuan, banan-banan baloratu beharko da pertsona bakoitza elgorriarekiko sentikorra den edo ez eta, hartara, hirukoitz birikoaren txertoa jarri behar zaion edo ez. Balorazio hori egitean, puntu hauek hartu beharko dira aintzat:
  - Ez da beharrezkoa, eta ez da agintzen, serologia egitea.
  - 1970 eta 1980 artean jaiotako pertsonak adierazten badute ez dutela elgorria pasa eta/edo ez dituztela hirukoitz birikoaren txertoaren bi dosiak jaso, txertaketa osatu beharko dute hirukoitz birikoaren txertoaren bi dosirekin.
  - 1981. urtearen ondoren jaiotako eta “txerto guztiak jaso dituztela” dioten pertsonak, benetan Euskal Autonomia Erkidegoko gomendioak behar bezala bete badituzte, hirukoitz birikoaren bi dosi jaso behar zituzten, eta, hala bada, behar bezala txertatuta daudela joko da.
  - Edonola ere, sentikortasunari buruzko edo jarri beharreko dosien kopuruari (bat edo bi) buruzko zalantzak jarraitzen badu, pertsonak elgorriaren birusarekiko gaur egun duen edo etorkizunean izango duen esposizio-arriskua baloratu beharko da (atzerrirako bidaiak, osasunaren arloko langileak, eta abar).

Azkenik, garrantzi handikoa da gogoraraztea hirukoitz birikoaren txertoa birus biziaren txerto arindua dela eta, hortaz, ezin zaiela jarri pertsona immunodeprimetuei, haurdun dauden emakumeei edo haurdun geratzea bilatzen ari diren emakumeei.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 11.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaritza. Osasun Saila.